

Ezpalak

JON TORNER

Markos Zapiain idazle irundarrak *Txillardegi eta ziminoa* (Susa) saiakera literarioa argitaratu du. Jose Luis Alvarez Enparantza *Txillardegiren* eleberrietan, 1957an idatzitako *Orangutanen ugarte*a ipuinetik hasi eta aurki kaleratu-ko duen *Horretaz* saiakera bilduma arte, animaliek –tximinoek bereziki– duten presentzia aztertu du Zapiainek liburu horretan.

Aitzol Mendiola izango da Iruñeko Bertso Eskolako lehendakaria, eta Erika Lagoma idazkaria. Hilaren 24an aurkeztu zuten Iruñerriko gaztetxoaren artean bertso larritza sustatzea helburu duen eskolaren proiektua.

Francisco Calvo Serraller

(Madril, 1948) irakasle eta arte kritikaria izango da Jorge Oteiza Katedrako zuzendari berria. Pedro Manterolaren lekua beteko du Calvo. Oteiza Katedra bost urtez zuzendu du Manterol: "Artea zirku itxurako ikuskizunetik bereizi egin beharra dago, sakontasunaren bila. Egin dugun guztia ez da nire gustukoa izan, baina uste dut orokorrean, lanak merezi izan duela".

Kloratita

taldeak *Inoiz baino gehiago... komunismoa* (Musikherria) izeneko disko bikoitza kaleratu du. Iazko abuztuan Gasteizen grabatu zuten kontzertua eta Venezuelako Sontizon taldearen *A todo 11 le llega su 13* diskoa bildu dituzte lan horretan. Euskal Herriko eta Venezuelako egoerari buruzko 16 orrialdeko liburuxka ere aterako du.

XIX. mendeko artelanak bildu dituzte Bilboko Arte Eder museoan

XIX. mendeko hainbat artistek paperean egindako 74 marrazki, akuarela eta grabatu daude ikusgai Bilboko Arte Eder museoan *Goyatik Benlliurera* izeneko erakusketan. Garai hartan, sormen artistikoa industria iraultzei loturik egon zen. Iraultza horiek kostu baxuko papera, haren demokratizazioa eta egunkarien, aldizkari eta liburuen hedapena ekarri zuten. Grabatuak hazkunde nabarmena izan zuen orduan. Besteak beste, Francisco de Goya, Rosa Bonheur, Juan de Barroeta, Mariano Fortuny, Eduardo Zamacois, Anselmo Guinea eta Mariano Benlliurera (goiko irudian) obrak bildu dituzte bertan. Erakusketa 2008ko otsailaren 17a arte izango da zabalik.



Oskar Condek *Xirikan*: «Egun-
go merkatu diskografikoaren
krisialdiak halabeharrezkoa
bihurtu du auto-ekoizpena.
Talde txikiak eta ezezagunak
disko baten ekoizpenak suposa-
tzen duen gastuari aurre egin
behar diete, nahiz eta diskoetxe
baten barnean egon (...) Nik
dena ordaindu behar badut,
zergatik ez nik neuk dena egin
eta nire erara gainera? Gaur
egun, Internet sarearen zabal-
kudearekin, eta honek ematen
dituen erraztasunekin tresna
boteretsua dugu musikaren
difusioa bermatzeko».

Claire Lacarrak *Mintza* aldizka-
rian: «Jendeak, oro har, emaz-
tearen ahotsa musika goxo edo
politarekin lotzen du, eta eraku-
tsi da emazteek rocka lantzen
ere badakitela. Manera horre-
tan, musika mota anitz jorra
ditzakegu, baita ahots indartsu
eta oldarkorrak erabili ere. Nik
uste dut emaztekiek, gizonak
bezala, emozio guziak adieraz-
ten ahal dituztela, eta hor koka-
tzen dira bortizkeria eta indarra
ere. Niretzat nehorik ez du
musika guziaren monopolioa.
Musikariak gara gure sexuaren
gaitetik».

gure!
arteak
euskaraz



Abarrak

GORKA BEREZIARTUA

Lili buketa Literatura Eskolari

Hitzaldia: XX. mendeko euskal poesia**Hizlaria:** Koldo Izagirre**Lekua:** Gasteizko Landatxo gizarte etxea**Eguna:** 2007ko azaroaren 15a

Siberia Gasteizen, eskuak orbel iritsi nintzen Landatxo gizarte etxera, berandu, etzl bat ateari eta barrura. Puntua Literatura Eskolak jarria zuen denboraldi honetako bigarren saioan: XX. Mendeko Euskal Poesia. Aretoa bete zale Koldo Izagirri mikrorik eta aho-bizarrik gabe aditzeko. Labur joan zen goiza, poemak asko eta erreferentziak ugari. Ezinezkoa izango zait dena kontatzea, hobe alde zurretik aitortu. Hitzaldia azaltzera baino, iradokitzen nator.

Hiru ordu, hiru katebegi askatzeko. Hogeigarrenean gure poetak hizkuntza, poeta izateaz eta progresoz nola aritu ziren azaldu zuen pasaitarrak. Denboraren kronologia jarraitu ordez hitzaldia gaika antolatzeak ariketa konparatibo interesgarria eskaini zion Gasteizko talaiara hurbildu zenari. Adibide bat: trena progresoarean ikur modura hartuta mende osoko literaturan zenbat eta zein manera desberdinean hitz egin den azaldu zuen Izagirrek. Pello Errotaren bertsoak irakurri zituen, Arantzura bidean trena *bere plantatik* kendu zenean jarriak; Sorne Unzuetak *buztan balzdun harro*-az idatzitakoak; Felipe Arrese Beitia eta Emeterio Arrese garapenaren aurrean izan zituzten posturak aurrez aurre jarri zituen; eta gaur egungo idazle batzuek –Castillo Suarez eta Mikel Peruarenak, besteak beste– osatu dituzten trenaren figura poetikoak nabarmendu zituen.

Izagirrek egindako komentarioak izango ziren, algara baino irri sotila eragiten duten horietakoak; edo beharbada hitzaldiak izan zituen parentesiak –entzuleen kolaborazio ezinbesteko horiek–. Kontua da ondo pasa nuela. Ez da txikia hori, *lite-*

ratura kontzeptua *eskolaren*arekin lotzeaz ari garenean.

Batxilergoko literatura lezioak laino beltzak bezala etorri zitzaizkidan gogorra etxera bueltan. Idazle eta liburu zerrendak, inoiz irakurri ez nituen obren ezaugarri estilistikoak eta gaueko ordu txikietan egindako txuletaren bat edo beste. Literatura ez zen –ez da, gauzak asko aldatu ez badira– behar bezalako metodologiarekin eta gogoarekin irakasten gure eskoletan, eta horrela ez dago paperjaleen ekosistema duina osatzerik.

Ez dakit, gainera, arazoa zein neurritaraino den aldi baterako irakasle *mileuristarena*. Gasteizko eskola hizpide, iruditzen zait han inguruan lan egiten duten batzuek –irakasleena baino soldata handixeagoarekin, dena esan behar bada– badutela erantzukizunik euren protektoratuan ikasi dugunon literatur formazio eskasean. Ez al da posible bestelako ikasketa planak egitea?

Baina tira, hau instituzioen aurkako ohiko purrustada bihurtu baino lehen eskuak geldituko ditut. Hori bai, lehenago Literatura Eskolakoei titularrean agindutako lili buketa bidaltzeko aprobetxatuz. Biba zuek eta ne guak loreak bakarrik zimel ditzala.



Eskolatik kanpo daude zain ikasgai interesgarrienak.



Elorrioko Udala

euskera edo eskuara
üskara edo euskara
danok bat gara.

